

EUSKAL ITSAS MUSEOA

Hezkuntza eskaintza

2024
2025



EUSKAL ITSAS MUSEOA
MUSEO MARÍTIMO VASCO

GIPOZKOA

AURKIBIDEA

- Aurkezpena _____ 3
- 2024/2025 Hezkuntza eskaintza _____ 4
- Nola dago egituratua? _____ 5
- Nortzuk dira programaren hartzaileak? _____ 6
- Zein jarduera eskaintzen dira? _____ 8
- Informazio orokorra _____ 19

Aurkezpena

Museoak, landu duen hezkuntza eskaintzan, hain ezezaguna den euskal itsas ondarea gerturatzeko baliabideak aurkeztu ditu. Eginkizun honek, ikastetxeetako eskaintzaren osagarri diren baliabideak eta metodologiak txertatu ditu. Hau aurrera eramateko Euskal Itsas Museoa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Museo eta bilduma sarearen parte-hartzailea da: Igartubeiti Baserri Museoarekin, Zumalakarregi Museoarekin eta Gordailuarekin lurraldeko ondarea gerturatu eta ezagutzera eman nahi dugu.

Esperientzian eta balioetan oinarritzen diren programek, ondareari eta euskal itsas historiari buruzko kritikotasuna eta hausnarketa bideratu nahi dute ikasleengan.

Hezkuntza eskaintza honek ikasleak eta irakasleak erdigunean jartzen ditu.

Denontzako museo bat

Museoko jarduerak eta programak eratzten direnean, kontuan hartzen dira, alde batetik, desberdintasunekiko errespetua, eta bestetik, komunikazio eredu berriak ezarri eta esploratu beharra, pertsonen gaitasun kognitiboak eta inklusioa indartzeaz gain, ezagutzarako sarbide oso bat izan daitezten.

2024-2025

Hezkuntza eskaintza

Aurtengo hezkuntza eskaintzak Donostiako Kaian, euskaldunek itsasoarekin izandako erlazioan zein nabigazioaren historian oinarritzen da. Portua abiapuntu izanda, euskal herriko itsas historia, euskaldunek munduan zehar egindako itsas bidaiak zein nabigazioaren joan-etorriak landuko ditugu.

Gure programa adin tarte guztietara eta haien beharretara egokitzen da, hauei itsas-ondarearekiko jakinmina sortzearen helburuarekin.

Eta non egingo ditugu?

Museoa eskolan

Atal honetan jarduerak eskolan oinarritzen dira. Museoa eskolara gerturatzen da, euskaldunek itsas merkataritzan, arrantzan edo itsas-bideen garapenean izan duten garrantziaz hausnartu ahal izateko. Honi esker iragana eta aktualitatea alderatu egiten dira, ezaugarri komunak aurkituz.

Museotik kalera

Museoaren kokapen berezia ezagutarazi eta balioan jartzeko Donostiako Kaia eta Portua ezagutzeko bi programa ezberdin aurkezten dira:

Jolasa eta hausnarketa dira Donostiako Kaiaren historia eta kaia honek Euskal Herriko itsas historian izan duen garrantzia azaltzeko erabiliko diren baliabideak.

Museoan bertan

Euskal Itsas ondarea gerturatzea eta museoan eskaintzen diren funtsen eta erakusketen inguruko hausnarketa kritikoa piztea dira jarduera horien helburuak.

Nola dago egituratua?

Euskal Itsas Historiaren alderdi esanguratsuenak biltzen dituzten lau ardatzetan egituratu da:

- **Ekonomia** atalak askotariko gaiak biltzen ditu: jarduera ekonomikoak, Arrantza guneak, eta merkataritza-ibilbideak (arraina, kakaoa, balea-gantza, eta abar). Jarduera hauetan euskaldunak funtsezkoak izan ziren.
- **Nabigazioa** atalak itsas gertakari handiak eta esplorazioak aztertzen ditu: euskal marinelek, merkatariek eta arrantzaleek egindakoak.
- **Teknologia** atalak ontzigintza eta nabigazioko teknika ditu arlo nagusiak.
- **Natura eta geografia:** itsas bidaia historikoen ezagutzan sakontzen duen ardatza da, katografian, kosmografian eta naturan izan duten balioa ezagutaraziz.

Lau ardatza hauek **gizartea eta pertsonaiak** izango dituzte zeharkako gai bezala:



Nortzuk dira programaren hartzaileak?

Haur eta Lehen hezkuntza

Euskal ondarean lehen pausoak emateko esperimentazioaz eta jolasaz baliatzen gara. Museoa eta kalea, esperientzia horren gune bilakatzen direlarik.

Jarduerak garatzerakoan, lan metodologia espezifiko bat aplikatzen da, ondare elementuen erreprodukzioen gaineko interpretazio, jolasa eta zuzeneko esperimentazioa oinarritzat dituenak. Jarduerak ere euskal itsas historiaren gertaera garrantzitsuenak azpimarratzen dituzte.



<i>Museoan</i>						
<i>HH, LH (1-2)</i>	<i>Balea bi!</i>			.	.	45'
<i>HH, LH (1-2)</i>	<i>Olagarroaren altxorra!</i>	.	.			45'
<i>LH (2-4)</i>	<i>Pasaiatik Ternuara</i>		.		.	50'
<i>LH (2-6)</i>	<i>Itsasoa kontrolatuz jokoa</i>	50'
<i>Museotik kanpo</i>						
<i>LH (5-6)</i>	<i>La Jarana pista jolasa</i>	.		.		50'

Teknologia
Ekonomia

Nabigazioa
Geografia eta natura

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

Hezkuntza maila honetarako proposaturiko jarduerak, hausnarketa eta sormena izango dituzte hizpide, betiere euskal itsas-ondarea ezagutaraztearen helburuarekin.

Gainera, hizpide hauen bitartez itsas-jardueren inguruan sortu diren genero-erolelara hurbilduko gara.



Museoan						
DBH 3-4	Emakumeak eta itsasoa	•				50'
Adin tarte guztiak	Bisita gidatuak erakusketara	•	•	•	•	50'
DBH	Itsasoa Kontrolatuz jokoa	•	•	•	•	50'
Museotik kanpo						
DBH	La Jarana pista jolasa	•		•		70'

Teknologia
Ekonomia

Nabigazioa
Geografia eta natura

Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

Proiektua, prestakuntza bat da, eta gertakari historikoei gaurko egunean duten eraginaz hausnartzea eta euren errealitatea zalantzan jartzea du helburu.




Museoan						
Batx. – Lan. H.	Norena da itsasoa?	•	•	•	•	90'
Batxilergoa	Emakumeak eta itsasoa	•				60'
Adin tarte guztiak	Bisita gidatuak erakusketetara	•	•	•	•	60'

Teknologia
Ekonomia

Nabigazioa
Geografia eta natura


Zein jarduera eskaintzen dira



Museoan
bertan



45'



HH
LH 1-2

Tailerra

Balea bi

Jarduera honetan euskal balea zer den, eta honi esker zer lortzen zen azaltzen da, ternuarako balearen harrapaketa irudikatuz.

HELBURUAK

- Euskal balearen ezaugarri nagusiak ezagutu.
- Euskal marinelek historian zehar garatutako balea-arrantzaren eta baleetatik eratoritzen zituzten ekoizkinen ezaugarriak jakitera eman.
- Ingurumenaren zaintzarekiko sentiberatasuna bultzatzea.



Museoan
bertan



45'



HH/ LH
(1-2)

Ipuina

Olagarroaren altxorak

Mare Clausum erakusketarari bisita **Ramontxo** Olagarroaren Altxorak ipuinaren bitartez. Ipuina **Ramontxo** berak kontatuko du, erakusketan aurkitu daitezkeen mundu osoko altxorak ezagutaraziz.

HELBURUAK


- Historian zehar itsasoa nola eta zergatik zeharkatu den azertu.
- Txikienek nabigazioaren historian lehen murgilketa izango dute (nabigazio tresnak ezagutuz, edota euskaldunek historian zehar itsas-nabigazioan izan duten garrantziaren berri izanez)



**Museotik
kanpo**



50'



LH

Ibilaldia

La Jarana pista jolasa

Pista jolas baten bitartez Donostiako Portua edo Jarana auzoa ezagutzera eman, eta arrantzak eta merkataritzak portuari eta hiriari eragin dizkion aldaketak ezagutzeko aukera izango dugu.

HELBURUAK

- Donostiako Kaiak izan dituen aldaketak ezagutu
- Portuan dauden bazter eta istorio ezagunenetara eta ezezagunetara gerturatu.

OHARRAK


- Hasiera eta amaiera museoan izango dute



**Museotik
kanpo**



60-70'



LH 5-6 /
DBH

Ibilaldia

La Jaranatik Martxan

Jarduera honek Donostiako portuan arrantza munduan izan duen garrantzia azaldu nahi du.

Kaian biltzen den ondare materialaren eta ez materialaren bitartez portu honen bilakaera aztertuko dugu.

HELBURUAK

- Ezagutzea zer lotura dagoen Donostiako historiaren eta itsasoaren artean.
- Donostiako portuko ondare materialean eta ez materialean lotura honek utzi dituen aztarnak aztertzea.

OHARRAK


- Hasiera Euskal Itsas Museoaren sarreran izango da eta amaiera Nautikoan.



Museoan
bertan



50'



LH (2-4)

Tailerra

Pasaiatik Ternuara

Jarduera honetan lau mendeetan zehar Ternuako uretan euskaldunek garatu zituzten jarduera ekonomikoetan barneratuko gara.

Bertan bakailoaren eta balearen arrantzatik ateratako etekinen berri izango dugu eta kontserbatzeko sistemak aztertuko ditugu.

HELBURUAK


- Elikagaiak kontserbatzeko modu desberdinak; adibidez, gazitzea ezagutaraztea.
- Bakailoaren eta balearen arrantzatik ateratzen ziren produktuak ezagutzea.
- Baleazaleek eta bestelako arrantzaleek ontzi barruan zuten bizimodura hurbiltzea.



Museoan
bertan



60'



LH (2-6)
DBH (1-4)

Tailerra

Itsasoa krontrolatuz jokoa

Joko honen bitartez ikasleek *Mare Clausum* erakusketara hurbilketa bat izango dute. Erakusketa honek ¿Norena da itsasoa? galderari erantzuna eman nahian, nabigazioaren historiari errepaso bat ematen dio. Besteak beste potentzia ezberdinen artean egon diren lehiak edo trukeak azalduz. Ikasleak joko honetan potentzia hauen papera hartuko dute, eta beren altxorra eskuratzeko lehiatuko dira.

HELBURUAK

- Historian zehar potentzia ezberdinek izan dituzten lehiak eta itsasoaren kontrolaren garrantziaz konturatu.
- Nabigazioaren histoariako elementu klabe desberdinen berri izango dute, kortsarioak, eskorbutoa, itsas trepetxuen komertzioa edo bale arrantza bezalako elementuak ezagutuz.
- Itsas historiako gertakari garrantzitsuenak aztertzea eta ezagutzea: Tordesillaseko Ituna adibidez.



Museoan
bertan



50'



DBH 3-4

Tailerra

Emakumeak eta itsasoa

Hausnarketa kritikoaren bitartez euskal itsas munduan emakumeak izan duen garrantzia eta bere papera balioan jartzea da helburua. Kritikotasunaren bitartez gure gizartean itsas munduarekin loturiko kondaira eta lanbide desberdinek, emakumeek edota gizonek egin ezkeru zuten ikuspegi eta balorazio desberdina aztertuko da.

HELBURUAK

- Ezagutzea emakumeei eta itsasoari buruz dauden sinesteak.
- Kritikotasuna landu, lanbide berarekiko emakumeen eta gizonen arteko aurreiritziak aztertuz.
- Emakumeek euskal itsas ondarearen eraikuntza fisiko eta sinbolikoan eginiko ekarpena balioan jarri.



Museoan
bertan



90'



BATX
LAN. H.

Bisita + Collage Tailerra


Norena da itsasoa?

Lehenik eta behin *Mare Clausum* erakusketara bisita egingo da. Erakusketa honetan berak ¿Norena da itsasoa? galderari erantzuna eman nahi zaio, nabigazioaren historiaren iragan kritikoa berrikusten gaur egungo liskarrei buruz hausnartzeko .

Bisita ostean collage tailer bat proposatuko zaie ikasleei, ¿Zuen ustez norena da itsasoa? galderari erantzun diezaioten. Tailerrean, itsasoa gai nagusi gisa dituzten irudiak eskainiko zaizkie, besteak beste XIX. mendeko karikaturak non potentzia desberdinek ozeanoak eta nazioak beraien artean banatzen dituzten, historia osoko mapak zein gaur egungo irudi eta albistek.

HELBURUAK

- Tailer honen helburua hausnarketa sortaraztea da. Ikasleek itsasoaren kontrolaren inguruan hausnarketa kritiko bat egingo dute collage moduan, bisitan zehar entzun dutenaz, zein beraien kritikotasunaz baliatuz.



Museoan
bertan



45'



Adin tarte
guztiak

Bisitita gidatuak

Bisita gidatuak aldi baterako erakusketetara

Bisita gidatuak, aldi baterako erakusketen eta bisitarien arteko komunikazio tresna dira. Bisita hauek talde bakoitzaren errealitatearen arabera egokitzen dira.



Informazio orokorra



Gure jarduera guztiak **euskaraz, gaztelaniaz frantsesez eta ingelesez** eskeintzen dira.



Museoan bertan eta museotik kan: ikasleko **2,5€**
*arduradunek ez dute ordaintzen sarrerarik



Asteartetik ostiralera:

10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:30etara



Erretserbak eta zalantzak: 943 43 00 51
mediazioa@itsasmuseoa.eus
www.itsasmuseoa.eus



Kaiko Pasealekua, 24, 20003 Donostia

Euskal Itsas Museoa

Kaiko pasealekua, 24 - 20003

Donostia (Gipuzkoa).+34 943 430051

mediazaioa@itsasmuseoa.eus

www.itsasmuseoa.eus



EUSKAL
ITSAS
MUSEOA

MUSEO
MARITIMO
VASCO

